

### Gutuna: *Tutoreari*

**Egoera:** Maite, zure ikaskide eta laguna, urduri eta beldurtuta dabil azken asteotan. Ez dizu ezer esan nahi, baina hainbat ikaskidek badakizue zer gertatzen zaion: ikastetxeko zenbaitek jazarri egiten dute, jo, burla egin, sare sozialetan txikitu... Etsita dago laguna, bakarrik, iheska, ez dakizu zer egin dezakeen hemendik aurrera...

Eta, kezkatuta, Itziar tutoreari Maiteren egoeraren berri ematea eta arazoa konpontzeko bidea egin dezala eskatzea pentsatu duzu.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** Itziar tutoreari
- **Zer:** Maiteren egoeraren larritasuna azaldu (jazarpenaren xehetasunak: gutxiespenak, irainak...); zure eta beste ikasle batzuen kezkak eta zalantzak adierazi; Maiteri laguntzeko eta bullying kasu hori konpontzeko urratsak proposatu; Itziar tutoreari arazoa bideratzeko eskabide zehatza egin
- **Nola:** posta elektronikoz edo postaz
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz



*Bilbon, martxoaren 11n*

*Egun on, Itziar:*

**(Hemendik abiatuta, 150 hitz gutxienez)**

## IDAZLAN LABURRA / 1

AUKERATUTAKO GAIA

Gutuna

Aztertzailea-  
rentzat

150 hitz gutxienez

Aztertzailea-  
rentzat

Bilbon, martxoaren 11n

Egun on, Itziar:

Lex.  
hilabete/hil

Azken hilabeteotan gertatu den egoera baten berri emateko idazten dizut. Izan ere, larriturik nauka. Esan bezala, orain dela hilabete batzuk hasi zen dena, Maitek ilea

Lex.  
hilabete/hil

Punt.

kolorez aldatu zuenean, alegia. Badakigu Maite oso neskato berezia dela eta horrelako gauzak laket zaizkiola. Bada, ilea koloreztatu eta ikasgelan agertu zen egunetik irainak jaso izan ditu gure lagunak, bere itxura dela eta. Hasieran, Maiterengandik urruti edo ezkutuan egiten zituzten barre eta burla guztiak. Baina azken hiru asteotan aurrez aurre iraintzen dute eta, orduetik, Maite lur jota dago. Hori aski ez, eta

Punt.

Punt..

Egit. —

adatsetatik tira egin izan ohi diote noizbehinka.

Lex.

Ikusten duzunez, egoera gero eta larriagoa da eta ni beldur naiz gelakide gaizto horiek haratago joango ez ote diren. Pentsa dezakegu egoerak irtenbide erraza izan dezakeela, nahikoa dela Maitek ilea bere ohiko eran ekartzea; baina hori eskatzea ere ez da bidezkoa eta, gainera, Maite ezagututa, hori egin baino lehenago nahiago lur gorputz osoa koloreztatu. (Eta) erasotzaileei aurre egiten ez bazaie eta egoerak okerrera egiten badu, nork daki noraino iristeko gai den Maite gizajoa?

Punt..

Lex. ♂

Horrenbestez, egoeraren larritasuna azaldu eta konponbidea eskatzea da nire gutunaren helburua. Nire iritziz, bulling kasu baten aurrean gaude eta zuk erasotzaileekin hitz egitea litzateke irtenbiderik egokiena, tutorea zarenez gero. Zeuk ikusi gurasoei arazoa jakinaraztea komeni den ala ez. Nik neuk gurasoek egoeraren berri jakin behar dutela deritzot. Espero dut Maiteren egoera konponduko duten neurriak lehenbailehen hartzea, eta horrelako istiluak gure ikastetxetik behingoz desagertzea.

Hitz.Ord.

Lex.

Mila esker eskaini didazun arretarengatik,

Sinadura

## PROBA IDATZIA IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LABURRA

**Kalifikazioa: 6,5**

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 4, 5, 15  
-: 4, 7, 12**

### **EGOKITASUNA/EDUKIA: 2**

Atazak eskatzen diona ondo betetzen du. Gaiaren inguruko informazio egokia eman du, nahiz eta argudiobideak, kasu batzuetan, oso aberatsak ez izan.

### **MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 2**

Ideiek hari logiko bati jarraitzen diote; hala ere, ideia guztiak ez ditu behar bezala garatu. Lerrokadak ondo antolatu ditu. Koherentziaz aritu da aditz persona eta denborari dagokionez.

Lexikoaren erabileran egin ditu akats batzuk: *hilabete/hil* ez dira ongi bereizita erabili. *Gizajoa/gajoa...* *Berri (jakin) izan...*

### **ZUZENTASUNA: 2,5**

Puntuazioan eta hitzen ordenan izan du gorabeheraren bat edo beste. Nolanahi ere, gramatikaren arau nagusiak zuzen betetzen ditu, eta ez du akats larririk egin.